

KOSTUEN EGITURA

Proiektua aurrera joan ahala, kostu desberdinak azaltzen joango dira, eta atal honetan gure zerbitzuaren kostuak zeintzuk diren argituko dugu. Atal hau bi zatitan banatuko da: alde batetik hasierako inbertsioa, eta bestetik, hilabetero izango ditugun kostuak. Hilabeteko kostuen artean ere bi bereiziko ditugu: kostu aldakorrak eta kostu finkoak.

Hasteko, gure zerbitzua aurrera eramateko, ezinbestekoa da, nahiz eta gure kasuan diru eta baliabide laguntza ezberdinei esker txikia izan, inbertsio bat egitea. Hurrengo taulan gure proiektuari bultzada emateko izango ditugun gastuak eta diru-irteera desberdinak zehaztuko ditugu. Bertan webgunea sortzeko eta material desberdina eskuratzeko egin beharreko inbertsioa azalduko dugu soilik; izan ere, lokala eta hau beteko duten altzariak Zumarragako Udalak eskuratuko dizkigu doainik.

HASIERAKO INBERTSIOA	
Webgunearen sorrera	500€
Materiala	• Arbela: 40€ • Klariona (10 unitateko kaxak): $1€ \times 10 = 10€$ • Ezabagailua: 2€ • Arkatzak: $0,5€ \times 20 = 10€$ • Boligrafoak: $1€ \times 20 = 20€$ • Borragomak: $0,5€ \times 20 = 10€$ • Tipexak: $2€ \times 15 = 30€$ • Orri zuriak: $4,5€ \times 3 = 13,5€$ • Materialak guztira: 135,5
Posterrak	• $3,50 \times 20 = 70€$
Ikastaroa	• $400€ \times 5 = 2000€$
GUZTIRA	• 2705,5€

Herriko informatika enpresarekin hitz egin ostean, gure webgunea sortzeak 500€ inguruko kostua izango duela adierazi digu. Materialari dagokionez berriz, gure hornitzaileak prezio hauek eskuratu dizkigu eta guk hasiera batean izan beharko ditugun kantitateak estimatu ondoren guztira 205,5€-ko hasierako kostua izango dugula estimatu dugu. Posterren kostua gutxi gora behera 70€-koa izango da hasiera batean. Eta kondizio bereziak dituzten umeei buruzko emango ditugun ikastaroen gastu totala 2000€-koa izango da. Beraz, gastu hauek guztiak kontuan izanik, gure hasierako inbertsioa 2705,5€-koa izango da.

Aurrerago, diru-sarrera finkoak izan ahala, gure zerbitzua aurrera eramaten hasiko gara, eta honek hilabeteko kostuak dakartza berarekin. Kostu hauek bitan banatzen dira: kostu aldakorrak eta kostu finkoak.

Kostu aldakorrekin hasiz, guk izango ditugun bakarrak agortzen joango diren materialenak izango dira eta posterren mantentzea izango dira. Materialak agortzen joango dira seguruenik; posterrak berriz, denborarekin hausten edo bustitzen joango dira. Beraz, hilabetero izango dugun materialen gastuaren estimazio bat egin dugu hurrengo taulan.

KOSTU ALDAKORRAK	
Materiala hilabetero	• Klarionak (10 unitateko kaxak): $1\text{€} \times 1 = 1\text{€}$ • Arkatzak: $0,5\text{€} \times 2 = 1\text{€}$ • Boligrafoak: $1\text{€} \times 2 = 2\text{€}$ • Borragomak: $0,5\text{€} \times 2 = 1\text{€}$ • Tipexak: $2\text{€} \times 4 = 8\text{€}$ • Orri zuriak: $4,5\text{€} \times 1 = 4,5\text{€}$ • Materiala hilabetero guztira: 17,5
Posterrak	• $3,50 \times 10 = 35\text{€}$
GUZTIRA	• 52,5€

Argindarra, ura, gasa eta abar Zumarragako udalaren esku egongo direnez, gure kargu egongo den kostu finko bakarra soldatak izango dira, eta hurrengo taulan atxikitzen dugu hauen kostua:

KOSTU FINKOAK	
Soldatak	• $3000\text{€} \times 5 = 15.000\text{€}$
GUZTIRA	• 15.000€

Laburbilduz, gure zerbitzua aurrera eraman ahal izateko, hasieran egin beharreko inbertsioa 705,5€-koa izango da. Hilabeteko kostuei dagokienez, kostu aldakorren estimazioa 52,5€-koa da, eta kostu finkoak; hau da, gure soldatak, hilabetero 15.000€-ko diru-irteera izango da. Guztira, hilabetero 15.052,5€-ko diru-irteera izango dugu. Aipatu beharrekoa da, diru eta baliabide laguntza ugari izango ditugula eta honek gure diru-irteerak murrizten dituela gure zerbitzuaren arrakasta bermatuz.

